


DROGETEN

ITURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria. 313. zenbakia. 2022ko uztaila

**Hemen dira
Santixauak!**



A.H.:j.22.



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontzian, implantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutoa. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatueta:
10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Estibalitz González,
Eneko López,
Nahia Ruiz Albizuri,
Jon Saez
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

AZALEKO ARGAZKIA:

Antonio Hernández 'Cuco'.

LAGUNTZAILEAK:

Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López,
Ubane Madera,
Mallabiko Udala,
Valentín Mugarza
eta Libe Solozabal

ARGAZKIAK:

Ermuko Udala,
Estibalitz González,
Sonia López,
Ubane Madera,
Bero Manso,
Valentín Mugarza,
Orihen,
Nahia Ruiz Albizuri,
Javier Solozabal,
Txokomusikala,
Dorleta Vidal
eta Eva Zubizarreta.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Ander Goikoetxea,
Piedi Eizagirre
eta Mohamed Haidou.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko kantuak

Herritarron ahotik

Gaia: Ume-kantua

Enadiade

(Entzuteko: www.alboka.es)

- Enadiade su mar,
tres navíos en el mar.

- Otros tres
en busca van.



Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA..... 4 Bero Manso (Alemania)	ERMUAN ZER?..... 15 Txikurixa Xagua tabernan
ERREPORTAJEA5-7 Solozabal anaiak, Atxitzeko soiñularixek	MOTZEAN 16-17 Orihen taldeak disko berria izango du
MALLABIAN ZER? 8 Andra Mari Jaiak	IRITZIA..... 18 Gorputzak (Libe Solozabal)
ERMUAN ZER9 Egunean Behin Euskal Birusarekin	BOTEPRONTOAN 19 Eva Zubizarreta Txurruka
KIROLZALE 10 Sonia López mendi-korrikalaría	ANTZINAKOAK 20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
SANTIXAU JAIK..... 11-14 Egitaraua eta tabernen gehigarria	ZORION-AGURRAK..... 21 Saldu, erosi edo agurtu
	ABUZTUKO AGENDA ... 22

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Bero Manso

2007an joan zen Bero Manso ermuarra Alemaniara. Ordutik Wiesbaden bizi da (Alemaniako mendebaldean eta Europako zentroan kokatua dagoen hirian, alegia), baina ohikoa da Ermuko kaleetan ikustea, bizpahiru hilean behin bisitan datorrelako.



Bero Manso Wiesbadeneko kasinoaren aurrean. "Fiodor Dostoievski idazleak bertan galdu zuen diru guztia –azaldu du Mansok–, eta "esperientzia" horretan oinarrituta idatzi zuen *Jokalaria* liburua".

- Erabaki erraza izan zen Ermua utzi eta Alemaniara joatea?

Lagunak nituen Alemanian, lan aukera oso ona agertu zitzaidan eta aprobetxatu egin nuen. Hiru urteko abentura izan behar zenak hamabost urte beteko ditu laster.

- Nola imajinatzen zenuen Wiesbaden? Hiria eta inguruneak apur bat ezagutzen nituen, aurretik egon nintzelako. Hala ere, bertan bizitzen hiriaren beste alderdi batzuk sakonago ezagutu nituen, tartean aisialdi eta kultura aukerak.

- Badago harritu zaituenik?

Bai, deigarria iruditu zitzaidan alemanek egunean behin bakarrik jaten dutela janari beroa. Gosaria, askotan, gazia izaten da; jantokia badago, lanean bazkaltzen dute; eta afaltzeko ogia gaztarekin, hestekiak edo sandwich-txo bat, esaterako. Harritu ninduen baita emakumeek orokorrean ez dituztela ikasketa teknologikoak egiten, eta baita alemanek dena planifikatzen dutela, muturreraino. Afari bat egiteko urte erdi lehenago egiten dizute gonbita.

- Ondo moldatzen zara hizkuntzarekin?

Etorri baino lehen alemana ikasi nuen bizpahiru urtez, eta oinarrizko maila neukala uste nuen, baina... ez pentsa! Urteak pasatu dira, eta oraindik ere akatsak egiten ditut artikuluekin, batez ere idazteko orduan. Lan-kideek esaten didate oso ondo hitz egiten dudala, eta asko lagundu zidaten hasieran. Izan ere, lanean hasi nintzenean, bi hilabete

eman zizkidaten alemana ikasteko. Gerora jakin nuen enpresan ingelesez egiten dela lan, baina mehatxuak funtzionatu zuen.

- Zerbait botatzen duzu faltan?

Topikoa den arren, familiaren eta lagunak falta sentitzen jarraitzen dut. Herria bera ere faltan botatzen da: Ermua ez da berez polita, baina nire herria da, eta bertan ditut lagunak eta familia.

- Jatekoa...

Beste topiko bat da, baina janaria ere faltan botatzen da. Pandemia aurretik sarriago joaten nintzen Ermura, eta beti ekartzen nuen zerbait bueltan, tartean amaren tuperrak. Orain, gurasoek kaxak bidaltzen dizkirate noizbehinka: galletak, pernila, gazta... Nire gustuko gauzak. Bestalde, poteoaren falta ere sumatzen dut. Alemanak taberna edo jatetxe batean elkartzen dira, eta orduak ematen dituzte bertan, hitz egiten edo eztabaidatzen. Nik beste giroa nahiago dut: tabernaz taberna joan, jende ezberdina ikusi...

- Nolako a zure egun arrunt bat?

Oso arrunta, egia esan. Automobilgintza enpresa batean egiten dut lan, eta pandemia aurretik lanera joaten nintzen, eta irtendakoan gimnasia, ekintzaren bat egitera, lagunekin afaltzera... Pandemiarekin, aldiz, *home office* (tefelana) egiten hasi ginen, eta 2020ko martxoaren 13a izan zen lankide guztiok bulegoan elkarrekin

egon ginen azken eguna. Ordutik bizpahiru bider joan naiz bulegora, ordenagailuarekin arazoak izan ditudalako, baina bestela ez digute lagatzen bertara joaten.

- Eta zer egiten duzu aisialdian?

Maitte dut bidaiatzea, eta gogoan daukat lehengo urteetan asko bidaiatu nuela. Alde batetik, lana dela-eta, Alemaniako beste hiri batzuetan igarotzen nuen aste osoa. Asteburuetan, aldiz, beste herrialde batzuk bisitatzeko aprobetxatzen nuen. Alemania oso ondo kokatuta dago Europan, eta bidaiatzea oso erraza da. Gainera, 2007an krisialdi bat egon zen, eta hegan egitea oso merkea zen, beraz, Europako herrialde guztiak ezagutu nituen. Gaur egun lasaiago gaude, bai nik bai lagunek seme-alabak ditugulako. Dena den, astebururo daukagu planen bat: bazkariak, afariak... beti daukate parrila prest!

- Noiz egon zara Ermuan azken aldiz?

Bi edo hiru hilabete behin joaten naiz, Frankfurt-Bilbo hegaldi zuzena hartuta. Egunean bizpahiru hegaldi daude, eta garestiak badira ere, bi ordutan bertan nago.

- Ermura bizitzera bueltatuko zara?

Oporretan eta bisitan beti bueltatuko naiz, baina ez dakit bizitzera joango garen. Lan eskaintza interesgarria jasoz gero, agian bai, batek daki!

Dorleta Vidal



ZERMIK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT



www.zermik.com

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12



TXALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo ondoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo ondoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13
(Ermua)

ENKARGUAK
943 030 299



Florencio eta Modesto Solozabal, 1921an Oñangurenak erretrataute.

Solozabal anaiek, Atxitxeko soiñularixek.

Euren sasoiko musikagile gehixenen estilora, Modestok soiñue eta Florentziok panderue, bakotxak bere kaxetara jotzen ikesi eban, ekiñaren ekiñaz. Zoiezen lekure zoiezela estimaziño haundixe eken anaion trikiti-soiñuek: izan Trabakuko saloien, Oizeko landetan edo edozein erminttako erromerixan dantzan ipintzen eben jentie. Florentziok arinago laga baotsen be, Modesto betirako lotu zan bere soiñu txikire. Euren gaiñekuek osatzen lagun izan doguz Carmen eta Javier Solozabal, baten alaba eta bestian semie.

Donatz baserrixen jaixozien bixek, Florentzio 1896ko urriko 26xen eta Modesto 1905eko otsailan 24en. Vicente Solozabal Uriarte aitte mallabittarra zan eta berriztarra ama, Andresa Azagirre Gorritxategi. Geruao famelixie Añiño auzoko Atxitxe baserrire jungo zan bizi izatera eta anai bixok "Atxitxe" modure ezagutuko zittuezen.

Modestok mutikotan ikesi eban soiñue jotzen, bere seme Javierrek gogoratzen dabene modure "bere kaxetara, txirixiri, ekin eta ekin". Auzoko Etxebarri baserrire laguntzera jutzen zan eta behin soiñu zahar bat emon otsien, bertako Santi Aranburu edo Floren semiana izandakue haren baten, soiñue jotzen ibillittakuek bixak be. Soiñu txiki bat zan eta, behixek zaintzen zittuenien, haxe jo eta jo egoten zan. Jendian aurrien estreñnekoz 17 urte ekazela aurkeztu zan, Osmaldeko seme baten ezkontzara eruen ebenien. "Ze joko eban ba? Gauza haundirik ezin, baiña bapeza baiño gehixao! Orduen soiñu-jotailerik ez zan eruten eta doterezia haundixe izan

ei zan!" Javierren entzutez. "Ene, ha izan zan bodie!" esaten ebela be entzunda ekan.

Florentziok, ostera, pande-ruai oratu otsen eta anaiakin jotzen eban Trabakun eta inguruko erromerixetan. Pieza batzutan, bakarrik lagatzen eban Modesto gaztie, ze bera dantzaz euazen mutillei kobratziaz arduratu biher izaten zan. Halantxek gogoratzen dabe bai Javierrek zein Florentzian alabiek, Carmenek. "Nik beti entzun dot erromerixie eitten ebela Trabakun eta gure aittek entradie kobratzen ebala, baiña mutillei bakarrik, neskak debalde sartzen ziela". "Bai, andrazkuei bapebez!" azpimarratzen dau Javierrek.

Estimauek

Nobixie topetako orduen soiñu-jotailie izetiek "bere kategori-xatxue ekan" Javierren eritiziz eta Carmenen akorduz "jentiek esaten eban euren denporan ez ziela azian azkenengo orrixe, fama haundixe ekan hemengo inguruetan eta edozein ez izan eurekin ibiltzen". Florentzio Ixabel Antxiak ezkondu zan, Atxitxera bertara eta sei

Trabakun, Eugenio Aranburun solterotako despedidie. Argazkixan erdikaldien Modesto soiñue eskuetan dabela (1952).



seme-alaba euki zittuezen; beste horrenbeste ume ekarri zittuezen Indusiña baserrira ezkonduetako Modestok eta Maria Ortuzarrek.

Musikie jotiok afiziño modure baeken bixek, bizimodue beste leku batetik etaratzen eben: Modestok baserritik eta Florentziok ikatza eitetik, Eibarko taillarretara partiduaz. Biharra edo dana dalakua tarteko, anai nausixai apurka-apurka zaletasuna galduaz jun jakon eta laga ein otsen panderue jotiai. Modestok, ostera, jotzen eta ikesten jarraitu eban. Erromerixetan beste trikitilari batzuk entzute

gustatzen jakon: doiñue hartu akorduen eta etxeraterakuen haxe jo eta jo ekitzen otsen, ikesi arte.

Ekiñe

Solfeo barik eta belarri hutsez ikesten zittuen "beran ekiñan puruen. Radixorik bez bere sasoién, Arrate eta horrek gerora sartu zien eta nogandik ikesi gitxi ekan" Javierren gomutaz. Zortzi bat pieza jotzen zittuen "agarraurako bat bez gero: danak txikitixek, arin-ariñek edo bidekuek". Pieza batzui bere estiloxue emoten otsen "inkeza moduko bat einde, bozakín laguntzen otsen kon-

"Doiñuek belarri hutsez ikesten zittuen, ekiñan puruen"

SAN ANTONIO OKINDEGIA GOZOTEGIA

Izelaiaeta, 40 Tel. 17 00 63

AMAIA HARATEGIA

Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

AIZ

AIZ Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

IKASTOLA
1968tik Ermua euskalduntzen

pasari, `iiiiii!´ luze batekin”.

Modesto Atxitxek Santa Eufemia eta San Kristobalگو jai haundixetan eta inguruko erminttetako erromerixetan jotzen eban, baitte lagunarteko jatorduetan eta, zelanez, solterotako despedidetan. Auzoko gari-jotien osteko afarixetan be estimau eken haren musikie. “Bakotxien-bakotxien baserri baten eitten zan eta bera be laguntzera juten zan. Soiñue gurien egoten zan eta illuntzirutz auzoko gaztiek gurera etorten zien haren eske.

Afaldu ostien, jaixe, kriston juergie!” gogoratzen dau Javierrek irribarretsu. “Kobramentu konturik-eta, ezebez; zeozer emongo otsien, baiña gehixenetan tripatrak!” . Batzutan gazte jentie etortzen jakon etxera bille, erromerixara kotxe edo furgonetaren baten eruteko eta bueltan be eurok ekartzen eben etxera. Baiña gehixenetan oiñez juten zan, “tapa-tapa, abarkak jantzitte bidietako pozuetan ez busteko”.

San Kristobal egunien etenik

“Nobixie topetako orduen soiñu-jotaille izetiek bere kategorixatxue ekan”

barik jotzen eban: hasi soiñue astintzen Trabakuko tabernan eta oiñez goraino, jotzen-jotzen, pieza bata bestian segixan. “Ekixezenak repetidu eitten zittuen, eurokin leña!” semian esanetan. Oizeraino jun, jotzen ein bertan egun osokue eta barriro bueltan ekarten eban jendie dantzan Trabakurainok, bere soiñu txikixe tabernako mostradore gaiñien lagatzen eban arte.

Zoien lekure zoiela, Modesto Atxitxek danien topatzen zittuen lagunek eta plazan, jendaurrien, ez zan kukultzen. Kontularixe zan eta gustatzen jakon lehengo ipoiñek akordure ekartie, izan ez bazan be “txistosue eta zelebreyerixak esataillie”.

Arrate Irratixen grabaziño bat ein eban; sarritten jartzen dabe eta “Mallabiko trikitixe” izenetik ezagutzera emonda dago. Furgoneta baten jun zien 7-8 lagun eta Javierren kontakizunan harire “edurre suertau eta ez atzera ez aurrera geratu jakuen furgonetioi. Bultzeka eruen biher izan eben Arrate-

raino. Halan edo holan aillegau zien, bai, eta musika-plakiori sikieran grabaute geratu zan”.

Erabillian erabilliaz, soiñue behin baiño gehixaotan aldatu bihar izan eban eta ondo naustura arte, azkenera arte jo eban. Azken aldera soiñu-lagun bat be euki eban, Durangoko Basilio Etxeberria, “Basilio Txiki”. Honek soiñue jotzen jakin baekixen, baiña ez Modestok beste eta panderue kolpieten eban bikote lez plazaratzen ziranien.

1979an, lurretan, omenaldi bat jaso eban “Atxitxek” beste hamaika trikitilarikin batera. Bere jendaurreko azken emaldixe 1981ien, bere ezkontzan 50. urteurreneko mezan emon eban, bere pozerako abadiyek propio eskatute.

Modesto 1984ko aprillan 20xen zendu zan, Eguen Santu egunez; urte batzuk lehenao, 1969ko maiatzan 15ien jun zan Florentzio anaie, gazte denporetako musika-lagune. Aire-aire ba, Atxitxeko bikotie!

Estibalitz González



Modesto Solozabal, soiñue eskuetan dabela. Arg.: Txokomusikala.



**ZUZENBIDE
KONTUAK**
Lege eta
kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com



KRABI
Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

Psikologia
Ongizate pertsonalerako zentroa



GUZTIOK
Nahia Rojo Bustindui
Psikologoa eta Sexologoa

Zubiaurre 40 · Ermua
Hitzordua: 688 85 18 95

OSTEOPATIA



ARTROS
PABLO LUCENA

Probaleku 5 · 48260 · Ermua
617 680 156
www.artrosermua.com

HARATEGIA - URDAITEGIA



MIGUEL

BERTAKO
OKELAK

ETXEAN EGINDAKO
TXORIZO
TXISTORRA
ODOLOSTE
ETA
KROKETAK

PROBALEKU 3 - 943 170563
ERMUA

ZENGOITTE-OKA PASEALEKU BERRIA ERABILGARRI DAGO

Mallabia eta Berriko Udalen arteko lankidetzari esker, ibilbide berri batez gozatu dezakete herritarrek. Zengoitteko San Juan Bataia-



tzalearen ermita ostean hasi eta Okako errostaraino doazen ia bi kilometroetan, lehengo errepide zaharra aprobetxatu da. Aparkalekuak, jarlekuak eta pare bat miradore ditu, ibilbidea atsegina egiteko. Bide bazterretan, freskotasunaren berme diren zuhaitz mota ugari: urkiak, izeiak, urritxak, lizarrak, haritzak, arteak, intxaurrek, tarteko pinuren batzuk eta hosto gorriko okaran arbola eder bat. Ikuspegiak gero ez du parekorik: Udalaiz, Anboto, Elgoi, Alluitz, Aitziki, Untzillaitz, Errialtabaso eta Mugarra mendiak.

ANDRA MARI JAIK 2022

Abuztuaren 14a, igandea

Umeen eguna

11:00 Meza, Jasokunde parrokiari.

11:30-13:00 Mallabiko Trikitilariak kaleak girotzen.

12:00 Umeen txupinazoa botako du Alkate txikiak eta Gazte Alaiak dantza-taldekoek aureskua egingo diote.

12:00-14:00 / 16:00-18:00 Umeentzako haur parkea herriko frontoian.

18:00 Bits-festa parkean.

18:00-21:00 Kale animazioa Les enfants taldearekin.

19:00 Txupinazoa, Karmele Gisasolaren eskutik.

19:30 Txokolatada parkean.

21:30 Pilota partiduak Mallabia I Kirol Etxean.

1) Zubizarreta-Uriondo // Alberdi-Aretxabaleta

2) Artola -Albisu // Jaka-Imaz

Sarrerak abuztuaren 1etik 12ra egongo dira salgai udaletxean mallabitarrentzat, 12€ eta 18€ artean. Egunean bertan, 25€.

23:00 Erromeria Basajaun taldearekin, parkean.

ABUZTUAK 15, astelehena

Andra Mari eguna

11:00 Meza, Jasokunde parrokiari. Ondoren Mallabiko dantzariak plazan (euria bada parkeko aterpean).

17:00 Tute txapelketa Kontzejuzarrean. Izen ematea: 10€ bikoteko.

Sariak: 1. saria, 120€ eta garaikurra; 2. saria, 100€; 3. saria, 80€; 4. saria, 60€.

17:00 Mallabiko Gizonezkoen XXXII. eta Emakumezkoen II. Harri Jasotze Saria Harri Txikia herriko frontoian.

Gizonezkoak: 100 kiloko zilindro zaharra / 100 kiloko bola.

Emakumezkoak: 62,5 kiloko zilindro zaharra / 62,5 kiloko bola.

Parte-hartzaileak: Mikel Lopetegui "Urta" (Zarautz), Xabat Olaizola (Zarautz), Iraitz Arruti (Zarautz), Hodei Iruretagoiena "Izeta IV" (Zarautz), Imanol Royo

"Lartain" (Zarautz),

Paulo Azpiazu (Osintxu), Jon Gisasola "Zelai V" (Mallabia), Petre Bulgarea (Errumania),

Enrique Largo (Madril), Lierni Osa (Zarautz), Ainitze Zumeta (Zarautz),

Karmele Gisasola "Zelai III" (Mallabia), Udane Ostolaza (Orio),

Marina Blanco (Palentzia) eta Patricia Martin (El Ferrol).

Sariak: 900€, garaikurra eta txapela; 750€ eta garaikurra; 600€ eta garaikurra; 500€.

Gainerako parte-hartzaileentzako 300 €-ko dieta; dagoen marka hausten duenari, 200€.

19:00 Ricky teniseko irakaslea kale antzerkia parkean (euria bada CIP-eko futbito zelaian).

22:30 Amak taldearen ikuskizuna parkean (euria bada herriko frontoian).



Valentin Mugarza.



Valentin Mugarza.

ABUZTUAK 16, asteartea

San Roke eguna

11:00-14:00 XXI. Paella lehiaketa eta IX. Marmitako lehiaketa. Izen ematea 11:30ean.

Sariak: Marmitakoa: 1. saria, 110€; 2. saria, 55€. Paella: 1. saria, 110€; 2. saria, 55€. Mallabiko Trikitilariak animatuko dute giroa.

12:00 Meza, Jasokunde parrokiari.

14:00 Paella eta marmitako lehiaketako sarien banaketa.

14:15 Jubilatuen bazkaria Kontzejuzarrean.

16:00 Tolin mariatxia jubilatuentzat Kontzejuzarrean.

17:30 Koadrilen arteko jolasak. Saria: pintxotarako 20 txartel.

20:00 Mallabitar guztientzat txahal erreka (pintxo bat, euro 1) eta sagardoa doan parkean.

20:30 Erromeria Luhartz taldearekin parkean.

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

IZASKUN TXURRUKA
Goienkale 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia
94 317 66 90
peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com

SAN PELAYO
HORTZ KLINIKA • CLINICA DENTAL
Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI Col. nº 1264
PADI
Programa Ayuda Dental Infantil Gobierno Vasco
943 17 04 04
info@clinasanpelayo.com
San Pelayo Zeharkalea 5
48260 Ermua (Bizkaia)

Zuri egokitzen den odontologia
La odontologia que se adapta a ti

Egunean Behin jokoan parte hartzeko taldea sortuko du Euskal Birusak irailean

Uda ostean abiatuko da Egunean Behin aplikazioaren eta jokoaren 10. edizioa, eta ermuarrek aukera izango dute Euskal Birusa Euskara Elkarateak sortuko duen taldean lehiatzeko. Parte hartzaileen artean hainbat sari zozketatuko dira.

Galdera-erantzunen euskarazko jokoak da Egunean Behin, Eibarko CodeSyntax enpresak sortua, eta azken denboraldian (apirilean bukatu zena) 70.000 parte-hartzaile inguru aritu ziren bertan. Lehiaketa honetan esku hartu ahal izateko, Egunean Behin aplikazioa deskargatu behar da lehenik eta behin, eta bere izenak aditzera ematen duenez, egunean behin bakarrik jokatu daiteke: 10 galdera dira, 3 aukera erantzuteko, eta ahalik eta erantzun zuzen gehien eman behar dira, ahalik eta denbora gutxienean. Horren arabera, sailkapen bat egiten da, eta astero sariak banatzen dira.

Aplikazioak taldeak sortzeko aukera ematen du, beraz, sailkapen orokorrean parte hartzeaz gain, erabiltzaileak bere taldeetako sailkapenetan parte hartzen du jokaldi

berarekin: laguneren taldean, lanekoan, etxekoan, taberna-koan... Horiek horrela, Euskal

Birusa Euskara Elkarateak taldea sortuko du irailean abiatuko den denboraldian, ha-



margarrenean, eta nahi duen oro taldera batu ahal izango da. "Gaur egun herrian hainbat talde dauden arren, Euskal Birusak ere berea sortzea nahi genuen –adierazi dute ekintza honen sustatzaileek—. Pizgarri bezala, hainbat sari banatuko ditu elkarateak, parte hartzen duten guztien artean eta aste-ko irabazleen artean ere".

Euskaraz jolastu

Irailean sare sozialen bitartez jakinaraziko da taldera batzeko esteka, eta antolatzaileen esanetan, ekintza honen helburua da jendeak ahalik eta gehien jolastea joko honetara, euskaraz jolastea, alegia.

Parte hartu nahi dutenak gai anitzetan trebatu beharko dira: kultura orokorra, euskal kultura, txoriak, perretxikoak, zinea, geografia... "Euskara gutxi jakin arren ere, jokatu daiteke, eta minutu bat baino ez zaio eskaini behar egunean", zehaztu dute sustatzaileek.

Dorleta Vidal

Ferreteria
ANBOTO
Burdindegi

Orain
KOTXEKO GILTZEN
KOPIAK ere
egiten ditugu

943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es

DG Horacio Decoración

VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80
www.dghoraciodecoracion.com

TAPIERIA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK

Zure
publizitatea:

DROGETEN ITURRI

Ermuko eta Mallabiko
herri-aldizkaria

943 179350 / 688 632876
drogeten@gmail.com

mari
asun

LORADENDA

Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305

Sonia López, mendi-korrikalaria:

“Naturarekin harremanetan egoteak ez luke luxua izan behar”

Sonia López ermuarrak Europako Mendietako Travesera mendilasterketan parte hartu berri du, eta bigarren postuan bukatu. 14 ordu eta 53 minutu eman zituen korriketan, Covadonga eta Arenas de Cabrales artean dauden 74 kilometroak egiteko.

- Noiz sortu zitzazun mendiarekiko zaletasuna?

Mendira joan naiz bizitza osoan. Txikitan beti joaten nintzen gurasoekin kanpin batera, eta bestalde, beti egon naiz naturaz inguratuta.

- Noiz erabaki zenuen lehiazten hastea?

2018an hasi zen guztia, Piriñoetan oportretan nengoela. Lagun batzuek une horretan egiten ari ziren ibilbideetako batean parte hartzera animatu ninduten, eta ordutik beste lasterketa batzuetan parte hartzeko konbentzitu nintzen.

- Zein izan zen zure lehen lasterketa?

Lehena Tena bailaran izan zen, 52 km-ko maratokia. Nire lehen lasterketarako ez nuen inolako araurik jarraitu prestatzeko orduan, ezta karrera kudeatzeko orduan ere. Ez nuen hidratatzeko jarraibiderik kontuan izan eta ez nuen gelarik hartu.

- Eta nola prestatu zinen Europako Mendietako Travesera lasterketarako?

Ez dut prestakuntza zehatzik jarraitu. Izan ere, indarra eta erresistentzia fisikoa entrenatzeaz gain, antiinflamatorioa den elikadura ere eramaten dut. Beste aldetik, astean bitan yoga egiten dut, goizean ur



hotzarekin dutzatzen naiz, eta hipoxia eta meditazio ariketak egiten ditut. Estimulu hormetikoek gorputza indartsuago bihurtzen dute.

- Nola deskribatuko zenuke txapelketa hau?

Esango nuke txapelketa bat baino gehiago, abentura dela; beraz, lasterketaren alderdi psikologikoa lantzen saiatu nintzen. Goizeko ordu batean hasi zen, eta nik ez dut inoiz gauez korrika egin. Nire lagunek ordu horietan gutxienez entrenamendu bat egiteko gomendatu zidaten, baina niri

benetan gustatzen zaidana da goizez mendira joatea.

- Zein izan zen lehiaren unerik gogorrena?

Esango nuke unerik gogorrena azken 6 kilometroekin batera etorri zela. Oso nekatuta iritsi nintzen, eta horri gehitu behar zaio lainoa, lur irristakorra, eta duela gutxi zaintiratu izan nuela. Nahiko gogorra egin zitzaidan.

- Eta beste aldetik, zein izan zen zure momenturik gogokoena?

Gailurrera iristea. Ikuspegi zoragarri horietaz gozatzea

izan zen onena, eta gainera, jendearen eta lasterketa-prestatzaileen laguntza izugarri gustatu zitzaidan. Oro har, Europako Mendiek eskaintzen duten ikuskizunaz gozatzea.

- Zer sentitu zenuen sailkapenean bigarren emakumea zinela jakitean?

Korrika zoazenean, antolatzailerik zure egoeraren berri ematen dizute. Ez nuen sinesten! Nire helburu bakarra zen helmuga gurutzatzea, eta bigarren geratu behar nintzela jakin nuenean, ezin nuen sinistu!

- Zein izan da esperientzia honetatik atera duzun ondorioa?

Zoriontasunaren bila igarotzen dugu bizitza eta, ebidentziaren arabera, pertsonak esaten dute zoriontsuagoak direla naturaz inguratuta daudenean. Naturarekin kontaktuan gure lehen etxera itzultzen gara, eta etxean baino gusturago ez da inon egoten. Naturarekin harremanetan egoteak ez luke luxua izan behar, beharra baizik.

- Zein izango da zure hurrengo erronka?

Lasterketa batetik ateratzen zarenean, gora etortzen zara; beraz, izena eman nuen zenbait lasterketatan, bi aldiz pentsatu gabe. Lehenbizikoa Vall de Aranen izan zen, 105 km-ko lasterketa batean, eta laugarren postuan amaitu nuen, orain arte egin dudan lasterketarik luzeena. Beste aldetik, nire hurrengo erronka 8-K izango da Tena haranean, iraileko lehen asteburuan.

Eneko López



LEIRE RASCO
BIZARTEGIA
ILEAPAINDEGIA
943 17 17 96

 @LEYTHEBARBER

C/GOIENKALE NS
ERMUA (BIZKAIA)





LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44



UZTAILAREN 24a, IGANDEA

- **10:15** SANTIXAUETAKO IV. PADEL TXAPELKETAREN finalak San Pelaioko kantxetan.

- **12:00** San Pelaioko Bolatokian, **BOLO-PALMA TXAPELKETA** Campoo de Yuso (Kantabria) emakume-taldearekin. Antolatzailea: Peña Bolística Montañesa.

- **19:00** Orbe Kardinalaren plazan, **TXUPINAZOA** eta ohiko **KALEJIRA** Irulitxa eta New Tocado's musika bandek, eta Brincadeira batukada taldeak alaituta.

- **23:00 / 3:00:** Martxoaren 8a plazan **ROCK JAIALDIA** Stormseeds (Ourense), Balmog (Pontevedra), Totengott (Asturias) eta Nakkiga (Araba) taldeekin. Antolatzaile: Beti Txarto.

- **23:00 / 4:00:** **DANTZALDIA** Orbe Kardinalaren plazan Vulkano Show orkestrarekin.

hanigan's
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak
-eramateko prestatzen dugu-

Pintxoetan eta
garagardoetan aukera zabala.

Astegunetan 7:00etan zabaltzen dugu.
Zapatu, domeka eta jaiegunetan, 10:00etan.

Komentukua z/g · 943030527

**ONDO PASA
JAIETAN!**

LONDON
-taberna-

LA FORJA KAFETEGIA



UZTAILAREN 25a, ASTELEHENA

- **7:00** Orbe Kardinalaren plazan, **TXOKOLATE-JANA**, Gaztela-Leon Kultur Etxeak eskainita.
- **7:30** Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan, Txarangen Batzordeak antolatutako **BARRUS** partidak. Laguntzailea: Goxo-Goxo dastategia.
- **8:00** **SOKAMUTURRA** Ongaraiko Eskolako patioan.
- **12:00 / 14:00** eta **17:00 / 20:00** **HAURRENTZAKO PARKEA** San Martin plazan.
- **12:30** Santiago Apostoluaren elizan **MEZA NAGUSIA** patroiarene omenez.
- **12:30** **HERRI-KIROL** ikuskizuna Orbe Kardinalaren plazan. Harri-jasotzaileak: Jon Gisasola eta Karmele Gisasola. Aizkolariak: Hodei Ezpeleta, Bihurri, Zelai IV eta Álex Txikon. Iparraldeko jokoak.
- **12:30** **KALEJIRA** The Joselontxo's txarangaren eskutik.
- **17:00** Aritzmendi pilotalekuan, **PROFESIOALEN ARTEKO ESKUPILOTA PARTIDAK**: Caixabank Master Txapelketa, Ermuko Pilota Taldeak antolatua.
- **19:00** Orbe Kardinalaren plazatik irtenda, **ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA** Ondalan konpartsaren eskutik.
- **19:00** Orbe Kardinalaren plazatik irtenda, **KALEJIRA** The Joselontxo's txarangarekin.
- **20:00** Orbe Kardinalaren plazan, **LARRAINDANTZA** nahi duen guztiak parte hartzeko.
- **20:30** Orbe Kardinalaren plazan, **EUSKARAREN ALDEKO TOPA-KONPROMISOA**, Afaltazaindia taldeak antolatuta.
- **22:00 / 3:00** Martxoaren 8a plazan **ROCK JAIALDIA** Errmuko The Red Army eta We Are Apes, Hello!, Gipuzkoako Hiri Galduak eta Madrileko Yawners taldeekin. Honen ostean, AndoniS Djak **MUSIKA ELEKTRONIKO** saioa aurkeztuko du. Antolatzaileak: Beti Txarto.
- **22:30** San Pelaioko plazan, "Flotados" **KALE IKUSKIZUNA**, David Morenoren konpainiaren eskutik.
- **23:00 / 4:00** Orbe Kardinalaren plazan, Maremagnum orkestrak **DANTZALDIA** girotuko du.





UZTAILAREN 26a, ASTEARTEA

- **7:00** Orbe Kardinalaren plazan, **TXOKOLATE-JANA**, Gaztela-Leon Kultur Etxeak eskainita.
- **7:30** Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan, Txarangen Batzordeak antolatutako **BARRUS** partidak. Laguntzailea: Goxo-Goxo dastategia.
- **8:00** Ongarai Eskolako patioan, **SOKAMUTURRA**.
- **12:00 / 14:00** eta **17:00 / 20:00** San Martin plazan **HAURRENTZAKO PARKEA**.
- **12:00** Orbe Kardinalaren plazan, **NAGUSIEI OMENALDIA** eta Nagusien Etxeak antolatutako lehiaketa ezberdinetako irabazleei **SARIAK BANATZEA**.
- **12:00** **KALEJIRA** Mexico Lindo Mariachi bandaren eskutik. Ostein, Orbe Kardinalaren plazan **KONTZERTUA** eskainiko dute.
- **14:00** Merkatu Plazan, Nagusien Etxeak **HERRI BAZKARIA** eskainiko die aitona-amona bazkideei.
- **18:00** Orbe Kardinalaren plazan, **ESKU-PILOTA** partidak, Pilota Taldeak antolatuta. Afizionatu kategoriako nesken binakako partida: Arrizabalaga-Gaminda // Aldai-Mendizabalaren aurka. Ondoren, afizionatu kate-



goriako mutilen binakako partida: Hormaetxe-Pujana // Gorka Agirremalloa-Ibarlozaren aurka.

- **19:00** Orbe Kardinalaren plazan, Potxin eta Patxinek "Baserrian" **PILAZO IKUSKIZUNA** eskainiko dute.
- **19:00** **KALEJIRA** Ustekabe musika-bandak alaituta.
- **19:00** **KALEJIRA** Ermuko txarangen eskutik.
- **20:00** Orbe Kardinalaren plazan **LARRAINDANTZA**.
- **22:30** San Pelaio plazan Markeliñe taldeak "Carbón Club" **KALE IKUSKIZUNA** eskainiko du.
- **23:00 / 4:00** Orbe Kardinalaren plazan, Pasarela Orkestrak **DANTZALDIA** alaituko du.



Menua, kaxolak,
razioak, pintxoak...
Plater konbinatuak
8€-tik aurrera!
Ogitartekoak,
hanburguesak...

Tel. 943 17 15 57
ERMUA



ASTARLOAN
**GOXO
GOXO**

Kafé & Deliss

Tfo.: 943174612



Ondo pasa Santixauetan!!
Abuztuaren 22an itzuliko gara!

688 61 98 96
zeharkale 12 bajo
48260 ERMUA

IRENE ESQUÉ col 1666 EGOITZ FORMOSO col 1675

UZTAILAK 27, ASTEAZKENA

- **7:00** Orbe Kardinalaren plazan, **TXOKOLATE-JANA**, Gaztela eta Leoneko Kultur Etxeak eskainita.

- **7:30** Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan, Txarangen Batzordeak antolatutako **BARRUS** partidak. Laguntzailea: Goxo-Goxo dastategia.

- **8:00** Ongarai Eskolako patioan, **SOKAMUTURRA**.

- **11:00 / 12:30** Arroz-banaketa Orbe Kardinalaren plazan. Ondoren, **PAELLA LEHIAKETA** herrikoitari ekingo zaio haur eta helduen kategorietan. Antola- tzailea: Lobiano GastronomiA Elkartea, Laguntzailea: Ermuko dendari eta ostalarien elkartea.

- **11:00** Martxoaren 8a plazan, **SARDINA BANAKETA** nahi duen guztiarentzat, Nagusien Etxeak antolatuta.

- **12:00 / 14:00** eta **17:00 / 20:00** San Martin plazan, **HAURRENTZAKO PARKEA**.

- **12:30** **KALEJIRA** Irulitxa txarangaren eskutik.

- **13:00** **KALEJIRA** Macjeara's Jazz bandaren eskutik.

- **13:00** Orbe Kardinalaren plazan, Galiziako Kultur Zentruak antolatutako Allarizko Udal Bandaren **KON-TZERTUA**.

- **14:00** Paella lehiaketara aurkeztutako platerak **DAS-TATUKO DIRA** eta ondoren ohiko **HERRI BAZKARIA**.

- **18:00** Orbe Kardinalaren plazan, **ERROMERIA**, Lotxo taldeak alaituta.

- **19:00** **KALEJIRA** Irulitxa txarangaren eskutik.



- **19:00** **KALEJIRA** Macjeara's Jazz bandaren eskutik.

- **19:00** Orbe Kardinalaren plazan paella lehiaketako epaimahaikideek **IRABAZLEAK** ezagutaraziko dituzte eta **SARI-BANAKETA** egingo da.

- **19:15** Orbe Kardinalaren plazan **AURRESKUA ETA LARRAINDANTZA** nahi duten guztiarentzat.

- **20:00** **ERROMERIA** Lotxo taldeak alaituta.

- **20:30** **KALEJIRA** Artistas del Gremio bandarekin.

- **23:30** Irulitxa musika-bandaren **ONGIETORRIA** Orbe Kardinalaren plazan.

- **00:00** Ongaraiko parkean **SUZIRIAK** Caballer FX pirotekniaren eskutik. Ondoren, **KALEJIRA** Orbe Kardinalaren plazaraino eta bertan **AGUR JAUNAK** abestea, aurtengo jaiei agurra emateko.

- **00:30** Orbe Kardinalaren plazan, **JAIEN AMAIERA** Los Brincos taldearen kontzertuarekin.




CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefonoa 943 17 04 14



Torrealday

ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOIA

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA

ERMUA

Bitsi-denda Tailer propioa Etoju-denda



Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak
bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com · joyeriasenen@gmail.com

Euskal Birusak eta AntxitxiketaneK Txikurixa zabalduko dute Santixauetan!

Zuk ere lagundu dezakezu!

- Txandak eginez
- Patata-tortilak ekarriz.
- Zure kuadrillako errondan sartuz.

Zubiaurren, Xagua izandako tabernan

Egurdetik goizera arte zabalik

Sortu dezagun Ermuan jai giro euskalduna!!



Euskal Biruseko kamisetak Txikurixan salgai!!



Helduentzat: 10€



Umeentzat: 8€

ERMUKO UDAL LIBURUTEGIA LEKUZ ALDATUKO DA

Uztailaren 7tik 20ra itxita egon ostean, Udal Liburutegiak hilaren 21etik aurrera Lobiano Kulturguneko erakusketa aretoan eskainiko du behin behineko zerbitzua, Teresa Murgan aurreikusten diren berriztatze lanek irauten duten bitartean. Hauen helburua da eraikinaren bigarren solairua ere liburutegi bihurtzea, eta bertan dauden zerbitzuek eta elkarteek aurrerantzean kokapen desberdinak izango dituzte. Lanek irauten duten bitartean, Lobianon ez da bilduma osoa egongo (eleberriei eta umeen zein gazteen liburuei lehentasuna emango zaien arren), baina arduradunek gainontzeko zerbitzuen eskaintza bermatu nahi dute: egunkariak, aldizkariak, ordenagailuak, ikasteko lekuak, liburutegien arteko maileguak... Abuztu osoa zabalik egongo da, astegunez 9:00etatik 14:00etara.


Hainbat ekitaldi burutu dira Ermuan Miguel Angel Blancoren hilketaren 25 urteurrenean

Uztailaren 13an hogeita bost urte bete ziren ETAk Miguel Angel Blanco zinegotzia hil zuenetik eta, haren bahiketa eta hilketak gogoratzeko asmoz, hainbat ekintza burutu dira azken asteotan Ermuan, tartean erakusketak Izarra Centren eta Orbe Kardinalaren plazan. Ekitaldi nagusia uztailaren 10ean burutu zen, "Terrorismoaren biktimak omentzeko eta gogoratzeko ekitaldi instituzionala", hain zuzen ere, eta bertan parte hartu zuten Felipe VI.a Espainiako erregeak, Pedro Sanchez Espainiako Gobernuako presidentek, Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakariak, Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko presidentek, Unai Rementeria Bizkaiko Ahalduen Nagusiak, Carlos Totorika Ermuko alkate ohiak, Juan Carlos Abascal Ermuko alkateak, eta Miguel Angel Blanco eta Sotero Mazoren senideek. Arg. Ermuko Udala.



Orihen taldea laugarren diskoa grabatzen ari da

Colapso izango da Orihen talde ermuarraren laugarren diskoaren izenburua, urrian kaleratuko dena. Taldeak uztaileko lehen asteburuan ekin zion diskoaren grabaketari Mutrikuko AME estudioan, eta sei abestiz osatuta egongo da seguruenik. "2019an hasi ginen abestiak sortzen, eta 2020rako bukatuta genituen, baina pandemiarekin erabateko etena egin dugu", azaldu digute taldekideek. Eten horrek iraun duen bitartean, aldaketa ugari egon dira taldean, baina bere esentziari eustea lortu du: "Taldea birsortu egin da, ilusioz beteta gatoz, eta soinu berdina izaten jarraitzen dugun arren, egunotan konturatu gara zakartu egin garela apur bat", onartu dute. Uztailaren bukaeran amaituko dute grabatzen, eta udan egingo dira nahasketak. Horiek horrela, taldeak aurreikusi du irailean abesti batzuk aurreratzea, eta urrian plataforma ezberdinetan diskoa zabaltzea. "Badakigu musikazale klasikoenei CDak gustatzen zaizkiela eta, haien nahia asetzeko, kopia gutxi batzuk argitaratuko ditugu", argitu dute.



Caperos

Pinxoak • Razioak • Kaxolak • Plater konbinatuak • Ogitaratekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 • 636 549 154

**OSASUNA * ESTETIKA
EDERTASUNA**

Marfil

*Ile-apaindegi bat
baino gehiago!!*

Egokitutako burua
garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

quetzal
[arropa, bitxiak, opariak...]

Zubiurre, 2 • 48260 ERMUA | 943170065
www.quetzalmoda.com

ileapaindegia

Silvia
peluqueria

Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata
8:30-13:00

943 170474 688819336

Kale garbiketa eta hondakin bilketa zerbitzuak digitalizatuko ditu Mankomunitateak



Ezkerrean Asier Lekube (Badesako gerentea) eta eskuman Iosu Arraiz (Mankomunitateko presidentea).

Irailetik aurrera, kale garbiketa eta hondakin bilketa zerbitzuak digitalizatzeko proiektua abiaraziko du Debabarreneko Mankomunitateak. Helburua da zerbitzu horien efizientzia handitzea, besteak beste, edukiontzien egoera digitalki jarraituz. Mankomunitateko presidente Iosu Arraizek azaldu duenez, digitalizazioaren bitartez, errazago identifikatuko dituzte behar diren hobekuntzak, eta argiago ikusiko dituzte barne antolaketa mailan dauden premiak.

Arduradunek zehaztu dutenaren arabera, bi fase izango ditu Mankomunitatearen zerbitzuen digitalizazioak. Irailean

abiaraziko dute lehena, proba fasea, zerbitzua lizitatu eta berehala. Urtebeteko iraupena izango du eta hondakin bilketaren hiru ibilbidetan eta kale garbiketarako bi ibilgailutan ezarriko dute. Proba faseko emaitza egoki ikusten bada, Mankomunitatearen zerbitzu guztietan aplikatuko da digitalizazioa: 47 ibilgailuetan eta 2.428 edukiontzietan, hain zuzen ere. Proiektuaren berri emateko prentsaurrekoan Asier Lekube Badesako gerentea adierazi zuenez, edukiontzietan *tag* batzuk jarriko dituzte, ontziak lokalizatuta egon daitezen eta haien egoeraren gaineko kontrola eskuratzeko. Besteak beste, edukiontzia pisatzeko sistema izango dute eta oro har, ahalbidetuko du puntu bakoitzaren gaineko jarraipen zehatza egitea. Ibilgailuei dagokienez, berriz, ordenagailuak eta GPS sistema ezarriko dizkiete. Haien bitartez, aurreikusitako eta egindako zerbitzuaren artean izan litezkeen balizko intzidentziak detektatuko dituzte, eta konponbidea emateko eta zerbitzuak hobetzeko neurriak hartu.

Digitalizazio proiekturako aurrekontua 779.886,44 eurokoa da. Hiru enpresa aurkeztu dira deialdira eta irailean esleituko da zerbitzua. Iosu Arraiz Mankomunitateko presidentea esan zuenez, zerbitzuen eraginkortasuna bermatzeaz batera, digitalizazioak Mankomunitateko lanaren barne-antolaketan aldaketak ekar ditzake.

ERMUKO KOOPERAZIO KONTSEILUAREN ELKARTEEN FEDERAZIOAK BUKATUTZAT EMAN DU BERE IBILBIDEA

Ermuko Kooperazio Kontseiluaren Elkarten Federazioak ekainaren bukaeran jakinarazi zuenez, bere jarduera eten egin du. Hogei urtetik gorako ibilbidea egin du Federazioak, "ekimenez eta ekintzez beteak", haien esanetan. Horiek guztiak *20 años haciendo camino - Elkartasunean lan eta lan* liburuan jaso zituzten duela hilabete gutxi. Talde horretako kide izan dira Urko-Punta, Caritas, Eguarbitza, Komite Internazionalistak, Hagnia, Ermua Harrera eta Colibres, eta hauek lan trinkoa egin dute nazioarteko kooperazioaren eta elkartasunaren esparruan, hala nola gero eta anitzagoa den kulturantuntzen errealitateko bizikidetzaren alde. Azkenengo urteotan Udalarekin izan dituzten desadostasunek eraginda erabaki dute jarduera bertan behera uztea.



NEREA IÑIGUEZ HORTZ KLINIKA

CLÍNICA DENTAL NEREA IÑIGUEZ

San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

MALLA ilegalaidegia

Probaleku 8, behea
© 943 17 18 50

RIF

ITURGINTZA KONPONKETAK

Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81 / 688 71 27 10

ARKITEKTURA ESTUDIOA

BERRITZE LANAK ZURE ERAKINEAN

Ez dakizu nondik hasi?

GURE LANTALDE TEKNIKOAK LAGUNDUKO DIZU

ZUK ERABAKI

www.spara.es
info@spara.es

Probaleku, 4 Bis, Bajo 48260 Ermua - Bizkaia
943 17 70 57

KARABIXA

KARABIXA KAFETEGIA
Egunero 8:30etik aurrera zabalik

Gorputzak

Uda iritsi da, eta honekin batera armairu aldaketa. Bainujantzi berriak, aurreko urteetako praka motzak eta kamiseta tirantedunak. Super erosoak. Benetan maite dut ia arropa gabe kaletik ibiltzea. Hala ere, dena ez zait hain idilikoa iruditzen. Bada urtero data hauetan –emakumeoi batez ere– inbaditzen gaituen pentsamendu bat.

Zinez badakit zer gustatzen zaidan eta zer ez, zer egin nahi dudan eta zer ez. Dena den, oraindik presio soziala ez dut gainditu. Inguruko jendeak dio norberak iruditzen zaiona egin behar duela. Bai. Baina ez dugu egiten.

Talde baten barruan bizi gara, talde horren arau propioak ikasita ditu-

gularik. Nekez askatzen ditugu kate horiek, ohitura hauekin bizi baikara. Norma hauetatik irteten diren pertsonak, ordea, aurre egin behar diete begirada, komentario edo aurreiritziei. Eta uste dut, horrek nekatu egiten duela eta baita mindu ere.

Beraz, ustez gure erabakia diren ekintzak, depilatzea kasu, ez dira hainbeste gure erabakiak. Kontrol soziala zer den ulertzen badugu errazago ulertuko dugu gure erabaki propioak diren horiek batzuetan ez ditugula guk sortu, baizik eta gizarteak.

Edozein gizartek, berez, funtzionatzeko mekanismoak ditu taldea bere horretan mantentzeko. Eta funtzionamenduaren baitan kontrol



Libe Solozabal

mekanismoak sortzen dira. Kontrol sozialak normaltasunetik bereizten diren jokabide edo ohiturak zigortzen ditu. Ondorioz, portaera hauek ekidin behar direla barneratuz goaz.

Tristeia iruditzen zaidan arren, gure gizartean naturaltasuna ez da norma. Edertasun kanonek bonbardatzen gaituzte, genero rola betetzeko presioak, arraroa ez izatearen onarpenak. Horregatik, sasoi hauek ez dira samurrak izaten, nahi eta egin behar denaren artean gatazkak sortzen zaizkigulako.

Ez da nahikoa maitasun propioa bakarrik landu behar izatea, baizik eta pentsatzea: nahi duguna egiten ari gara?

“ ...norberak iruditzen zaiona egin behar du. Bai. Baina ez dugu egiten ”

Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOAK

VI. Mendeurrena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

arral arral97.com

Luis Cañas	Cair
Amaren	Casar de Burbia
Cair	Bodegas Valdemar
Ehun	García de Olano
Txakoli Astobiza	Manzanos Wines
Pazo Señorans	Pernord Ricard Wines
Cava Oriol Rossell	Faustino García Martínez.

nitida

T.943176075

arral@arral97.com | Pol. Goitondo-Goikoa, Parc.7 - Pab.1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

Proba-Leku
Ileapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

URRETA **burdindenda**

✕ Etxea	✕ Giltzak
✕ Tresneria	✕ Sarrailagintza
✕ Erikoizajea	✕ Kit altzariak
✕ Errailak	

Zeharkalea 8 Tel. 943 17 65 61 **ERMUA**

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

EVA ZUBIZARRETA TXURRUKA

- Nola gogoratzen duzu zure haurtzaroa?

Haurtzaro ona izan nuen, jolas askorekin. Patioan ibiltzen ginen, auzotik ia irten barik. *Katezismora* joateko irteten ginen, eta beste nonbaitera joatea bezalakoa zen!

- Eta gaztaroa?

Oso ona ere, parranda askorekin. Ez ziren gaur egungo parrandak bezalakoak, baina guk ere bagenituen gureak. Diskotekak zeuden gehienbat.

- Zer irakatsi zizuten gura-soek?

Musika. Aita oso musika zalea zen, eta abesten ere irakatsi zidan.

- Zenbat instrumentu jotzen dituzu?

Jo, jo... pianoa, akordeoia eta haien deribatuak. Gitarra ere badakit abesti batzuk jotzen, baina ezin dezaket esan gitarra jotzen dakidanik.

- Musikako ikasketak dituzu?

Bai, Kontserbatorioan lizentziatua naiz. Bilbon ez zegoen akordeoiko azterketak egiteko aukerarik, horregatik, bertan ikasi arren, Bartzelonako kontserbatorioan egin behar izan nituen azterketok.

- Umetan zer izan nahi zenuen?

Ez nekien zehatz zer izan nahi nuen, baina banekien karreraren bat ikasi nahi nuela. Aitak Irakasle-ikasketak egiteko esan zidan, baina Zuzenbidea ikasi nuen.



Izatez Eibarren jaiotako ermuarra da, eta bi seme-alaba ditu. Alboka Musika Eskolako sortzaileetako bat da, eta musika irakaslea izan da hamaika urteetan, baita kalejiretako trikitalaria ere.

- Nola suertatu zen Musika Eskolarekin hastea?

Aspaldi-aspaldi, Maria Elena Iturriagagoitiak, Silbia Izarrak eta nik musikako klaseak ematen genituen, bakoitzak bere etxean. Garai hartan Doan zapata-dendaren aurreko etxe batera joan ginen hirurok, eskolak emateko atonduta zegoelako, jabeek aurretik eskola partikularrak ematen baitzituzten. Hortik zinera eraman genituen instrumentuak, eta beste guztia tren geltokiaren ondoko lokal batean erakusten ge-

nuen. Azkenean Goienkaleko eraikinean geratu ginen.

- Zer da lan honetan gehien estimatzen duzuna?

Ikasleek zerbait ikastea. Haiekin harreman ona edukitzea ere estimatzen dut, baina gehienbat zerbait ikasaztea.

- Aisialdian, zerekin gozatzen duzu?

Pasiatzen eta bidaiatzen. Askok bidaiatzen dut.

- Errepikatuko zenukeen tokiren bat...

Norvegia asko gustatzen zait, baina birritan egon

naiz jada. Kanadara, aldiz, ez naiz oraindik joan, eta bisitatu nahiko nuke.

- Zein musika mota gustatzen zaizu?

Klasikoa. Badago bat edo bat ez zaidana gustatzen, baina gehiengoak bai. Euskal musika ere gogoko dut, baina nahiago ditut lasaiak diren abestiak.

- Irakurtzea, zinea, irratia edo telebista, zein nahiago?

Zinea eta irakurtzea, nahiz eta geroz eta gutxiago irakurtzen dudana.

- Bertute bat?

Pazientzia. Esango nuke badaukadala.

- Erraz haserretzen zara?

Ez, pazientziarekin hartzen ditut gauzak. Edo hori uste dut behintzat!

- Zer da egunero kale egin gabe egiten duzun hori?

Kafea hartu eta gosaldia. Lehenik kafea hartzen dut; gerora, denboratxo bat pasatzen denean, gosaltzen dut.

- Puntuala zara?

Bai. Gerta daiteke noizbait berandu heltzea, baina normalean puntuala naiz.

- Zer miresten duzu pertsona batengan?

Kasu egitea. Zutaz gogortzea denbora bat igarotzen denean, eta hor zaudela kontuan izatea.

- Teknologia berriak?

Saiatzen naiz, eta ez dut arazorik egin behar ditudanak egiteko: mugikorrean, ordenagailuan...

Nahia Ruiz Albizuri

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

Udal Euskaltegia
Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33

MALLABIA 1950

Argazki hau Goita auzoko Uxarte baserrian aterata dago, eta bertako bost alaba ageri dira, hala nola Candida ahizpa nagusienaren hiru alaba. Atzean, Dolores, Evarista, Candida, Valentina eta Matea Gallastegi; aurrean, Maria Angeles, Milagros eta Alejandra Maiztegi.



ERMUA 1961



Zezen Egunean, sardina-jate mitikoa egiten. Ahoa beteta batzuk, begira beste batzuk... Tartean daude, ezkerretik eskumara eta atze-atzean: Inma Izagirre, M^a Luisa Zubizarreta, Mari Carmen Jauregi, Ali Aldalur, Esther Pagaldai, Marian Markina, Adori González eta Mari Feli Manzidor. Aurrerago Josepa Unzueta, Merche Uriarte eta Elena Garitagoitia. Erdi aldean Juantxu Arrieta, Eufrasio Moradillo, Maribel Zuazua eta Luis Urreta. Aurre-aurrean Santos Urreta eta Nerea Izarra.

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA



Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454

sehiga.proteccionlaboral@gmail.com



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

LAN BILA

Ermuko neska euskalduna eskaintzen da umeak goizez zaintzeko. Esperientziarekin eta magistaritza ikasketekin.
© 648 62 52 09.

Neska gaztea, arduratsua eta esperentziaduna eskaintzen da pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo garbiketa lanak orduka egiteko. Egunez zein interna bezala.
© 632 04 40 01

Neska eskaintzen da umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanetarako. Esperientziarekin. Orduka, jardun erdia edo osoa. Berehala hasi naiteke lanean.
© 632 41 53 74.

Neska arduratsua eskaintzen da garbiketarako egiteko, edo pertsona nagusiak eta desgaituak zaintzeko. Esperientziarekin. Lan externa edo orduka.
© 617 67 49 27

IRAKASKUNTZA

Matematikako, fisikako eta kimikako klase partikularrak eskaintzen dira DBHn dauden ikasleentzat.
© 688 68 36 55.



Uztailaren 26an
Zorionak Jonathan zure 6. urtebetetzean. Musu handi bat guztion partez!



Uztailaren 28an
Zorionak Inhar! 5 urte, mutil handi! Ondo pasa zure egunean eta muxu handi bat etxeko guztion partez.



Uztailaren 14an
Zorionak Amaia!! sei urte!!! Neska handixa! Musu haundi-haundi bat guraso, Aitor eta aitxitxa ta amamen partez!



Lur (uztailak 12) eta Izar (abuztuak 2)
Zorionak marimatrakak! Jarraitxu beti bezain jator eta politx! Maitxe maitxe.

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua elektronikoa helbide honetara:
drogeten@gmail.com

Azken eguna: Irailaren 21a.



**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

PRO
arraindegia



**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA



Entzumenaren doako azterketak
Audifonoetan azkenengo teknologia

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51



**MUSIKA
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala


Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

UDAKO ZINEA

Abuztuaren 1ean:
Jojo Rabbit




Abuztuaren 3an:
Space Jam: Aro berria



Abuztuaren 8an:
La boda de Rosa



Abuztuaren 10ean:
Jungle Cruise



Abuztuaren 17an:
Cuñados



Abuztuaren 22an:
Errementari



Abuztuaren 24an:
A todo tren



Abuztuaren 29an:
Explota explota




Ordua: 22:00etan.
Lekua: Orbe Kardinalaren
plazan. Euria bada, elizako
aterpean.

Patxi López

FEREDU

SOLUTIONS S.L.



- * HEZETASUNAK
- * ERREHABILITAZIOA
- * INPERMEABILIZAZIOAK
- * MANTENIMENDUAK
- * IGOGAILUAK
- * ERREFORMAK
- * FATXADAK
- * ITE
- * TEILATUAK
- * GARBIKETAK

www.feredusolutions.com
699 476 112 / 946 423 649 ERMUA

GREMIOEN

GIDA



ITURGINTZA
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA
LUIS VALLE

Bainugelen erakusketa
943 17 15 56
Tailerra
943 17 23 56
Goienkale z/g

ERROTULAZIOA
ROTEK
R Ó T U L O S
Argi errotuloak · 3D letrak · Ibilgailuak
Erakustokiak eta azokak · Formato handiak
Publizitate kanpainak · Led pantailak
943 17 00 36
www.rotekrotulos.com
ROTEK
LED PANTAILAK

PERTSIANAK
ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak
Tailerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)
Erakusketa: Karabixu 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persiansorbe@gmail.com

ETXETRESNAK

Egaña
ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA
Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

ELEKTRIZITATEA

BETA
ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA
• Proiektuak • Kalefakzioa
• Instalazioak • Gaueko tarifa
• Erreformak • Erradiadore elektrikoak
Diputazio, 13 943 17 65 25
689 23 31 71

ITURGINTZA
ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA

PALACIOS SM
ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA
GREMIOEN KUDEAKETA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)
info@palaciosfontaneria.com
www.palaciosfontaneria.com
660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com

XAGUA

Santixauetan
zabalik!
Zatoz zure
potea hartzera!

TXIKURIXA

Euskal
Birusa
Elkartea



Antxitriketan



Ugaro
asesores

- AHOLKULARITZA FISKALA
ETA KONTABILITATEA
- LAN AHOLKULARITZA
- AHOLKULARITZA JURIDIKOA



Zubiaurre Kalea, 27 • 48260 ERMUA
tel. 943 17 43 44 • ugaro@ugaro.com

Agente eksklusibook:

Allianz 
Seguros